

Miren Jaio*

Iragana pisua da

Testu hau 2002ko ekainaren 21eko Artelekuren berrinaugurazio ekitaldirako idatzi zen, *Garai Txarrak* proiektu-memoriaren baitan. Proiektua Ibon Aranberrik koordinatu zuen, eta besteak beste artista hauek parte hartu zuten, bakoitzak bere ekarpena eginez: Ixone Arregi, Blami, Gorka Eizagirre, Iñaki Garmendia, Gemma Intxausti, Mattin, Asier Mendizabal, Asier Pérez-González, Sergio Prego eta Xabier Salaberriak.

Testu hau, aurrez, Zehar 49 zenbakian argitaratu zen, 2002an.

* Miren Jaio arte kritikaria da.

Gauza gutxitan jarri ohi dira ados zientzialariak; bakan horietako bat, ordea, hauxe da: sekula ezingo dugula iraganera bidaiatu. Litekeena da inoiz etorkizunera bidaiatu ahal izatea (joaneko txartelaz). Diotenez, egunen batean akaso espazioan zehar bidaiatu ahal izango dugu tximista baino azkarrago, eta, espazio ontziko beste tripulatazileekin urtebetez karta-jokoan aritu ondoren, Lurrera itzuli eta elkartu ahal izango gara gure azken herenilobarekin, ordurako zahardadeak jota eta egoitza batean giltzapetuta dagoela. Baina inondik inora ezingo gara, zientzialarien esanetan, iraganera itzuli. Ezin dugu mendearen hartu. Berreskurazina da, aldi malapartatu bat.

Horrexegatik, kontraesanezko espiritu hutsagatik, iraganera behin eta berriro itzultzeko tema nekaezinak bizi gaitu. Alegiazko itzulera da, noski. Eta iragana bezatzeko askotariko —eta alferreko— eginahal horiek sentimendu bakarra uzten digute: galerarena. Behinola saguak, hezetasuna eta denbora ziren zentsore gupidagabeak, zerk iraungo zuen eta zerk ez erabakitzen zutenak. Gaur ez dago ez zentsurarik ez hautespenik. Ezin da iraganeko ezer (hobeki esan, haren arrastorik) ahaztu, denak dokumentatua behar du egon. Eta, hala, dogma kontserbazionistari esker (bestalde, printzipio ekologikoekin zerikusirik ez duena, alderantziz baizik), iraganaren dokumentazioa olagarro kontrolaezin baten modura haziz doa, disko gogoretako memoriaren putzu ilun hondogabeetan hertsatua.

Iraganaren bortxazko berpizte horren atzean beste dogma bat gordetzen da: ezin dugu ezertxo ere ahazteko atrebentzia hartu, eta horregatik iraganeko arrastoak gorde behar dira. Beraz, oroimena ez galtzea betekizun morala bihurtu da. Alabaina, jendea halabeharrez gogoratzeri behartzea ez da, menturaz, oroimenari eusteko modu egokia. Oroimena, ahaleginak ahalegin, apetatsua eta aldabera baita, ez du ezer ezartzerik maite. Har dezagun, esaterako,

gogoratzeko betebeharraren instituzionalizazio molde muturrekoena: oroitza. Zer geratzen da, egiaz, suntsitutako eraikinen hautsa pausatzen denean, zuzeneko lekukoak hiltzen direnean eta gertatutakoaren oroitzapena liburu bateko aipua besterik ez denean?

Baina iraganaren pisua —dokumentuak tonaka— ez da nolanhikoa. Iraganaren pisua oso astuna zaigu. Nostalgia, esaterako. Uda batez, Artelekun egin ohi diren ikastaro horietako batean, nostalgiari buruzko solasaldi absurdo samar bat izan nuen beste ikasle batekin. Nire solaskideak zioen nostalgiaren gaitza laster erauzia izango zela mundutik. Haren ilobak, Playstation bati loturik bizi diren izaki estrainio horiek, laster libratuko ziren nostalgiaren fardel astunetik. Izan ere, belaunaldi berriei gainera datorkien trepetak, irudi eta esperientzien erauntsia hain da izugarria, ezen ez dute oroitzapenatarako denborarik zango. Argudioa borobilduz solaskideak zioenez, nostalgia ez da jendeak iraganari buruz gordetzen duen zerbait: nostalgia iraganeko zerbait «da».

Ordutik hona zenbait urte joan dira. Artelekuk atea berriro zabaldu dituen honetan, bera ere sartu egin da «iragan eta memoriadun gauzen» eremu likatsuan. Iloba gajoei hori bera gertatu bide zaie. Bien bitartean, izeba ankerrak ebidentziari men egin izango dio: nostalgia tentu (eta antsietate egoera) iraunkorra da, txertorik ezagutzen ez zaion gaixotasun bat.

Edo bai. Txerto posible bakarria ahanztura da. Baina, aukera izanda, inork aukeratuko ahal luke alzhemerraren ezereza, oroitzapenen kondena bazterturik? Ez dut uste. *Total Recall* filmean, muki mintzez estalitako mutante batek zer nahi duen galdetzen dionean, honakoa erantzuten dio Arnold Schwarzeneggerrek: «Zuk nahi duzun gauza bera. Oroitu». «Baina, zertarako?», ihardesten dio kreaturak. «Ostera neu izateko», Schwarzeneggerren erantzuna. Ederki zekien Arniek —hobeki esan, Philip K. Dickek sortutako pertsonaiak— memoriarik eta oroitzapenik gabe, ez dagoela izaterik.

Nolanahi den, nostalgiaren gorespenezko garaiak bizi ditugu. Ikusle gutxiko ordutegietan telebista piztea eta garai bateko programen azken errepikapena ikusteari lotzea besterik ez dugu hori egiaztatzeko. Zergatik du nostalgiak sekula baino indar handiagoa? Bada, izeba ankerrak hura arbuizatzeko argudiatzen zuen arrazoi beragatik: gauza gehiegi gertatzen direlako, eta azkarregi, eta horiek erregistratu ezinik gabiltzalako. Gaurko munduan ekuazio hau da nagusi: «zenbat eta aldaketa eta gertakari gehiago denbora gutxiagoan, orduan eta galera gehiago. Hau da, historiak zenbat eta bizkorrago aurrera egin, orduan eta handiagoa da nostalgiazko sentimendua».

Sakonago azter dezagun nostalgiazko sentimenduaren hazkunde hori. Ez ote da hein batean aurrefabrikatua? Garbi gera dadila ez garela sentimendu hori zalantzan jartzen ari. Nostalgiari gauza asko lepora dakiok, besteak beste bertan gozo geratzeko arriskua, baina ez — nostalgiadun kartsu eta suhar batek diotsu — sentimendu faltsua izatea.

Ez, beste zerbaitez ari gara. Hain zuzen ere nostalgia sentimendu kolektibo gisa manufakturatzeo temaz, zeinekin distira eta lagunarte-aria eman edozein motatako ekintza soziali, esaterako lagun eta ezagunekin egindako afari aspergarriei nahiz ikasle ohien urtean behingo bilerei. Horrenbestez, nostalgia kolektiboa manufakturatzea ez da iragan gordearen itzelezko soberakinari etekina ateratzeko modu zoli bat baino. Horrek zer adierazten digu? «Altruistak bezain eraginkorrak diren buru argi batzuen sorkuntza da nostalgiaren industria». Baina, ni neu, Philip K. Dickek sortutako giroan barruraino sartuta nago jada. Eta hotzikara bat sentitzen dut, ezinbestean, iparramerikar idazlearen lanaz egindako zinemarako egokitzapena gogora ekartzean, non «erreprikante» deitutako humanoide batzuei oroitzapenak neurriera manufakturatzen baitzizkieten. Baina, jakina, *Do Androids Dream of Electric Sheep?* eleberri bat baino ez da, eta Dick burua gaixo duen

gizajo paranoiko bat. Baina, jakina, *Blade Runner* film bat baino ez da, eta Dick burua gaixo duen gizajo paranoiko bat.

Edonola ere, iragana askotariko moldez berreskuratzeo obsesio horrek ondorio izugarri bezain ageriko batera garamatza: iragana parke tematiko eskergea bat da, amnesia pittin bat eta anestesia gehixeago behar denean bisita daitekeen esparru handi bat. Horrenbestez, iragana, berreskuraezina bada ere, toki eroso da bertan ibiltzeko. Orainak eta etorkizunak sekula emango ez duten zerbait eskaintzen du: ziurtasuna. Baina esan behar da — besterik ez bada ere kontsolamendu gisa — hor ere alferrik ibiliko garela bila.